



BOLUNTARIOENTZAT ZIRKULARRA

JARRAIBIDE OROKORRAK:

- Goizeko 9:00etatik 12:00etara adi egon telefonoari.
 - **Eskuak xaboiarekin ondo garbitu: Erosketa egin aurretik eta ondoren.**
 - Boligrafoa eta libreta bat gainean eraman.
 - Posible bada, erosketak egiteko karrtoa erabili, poltsak eskuetan eramatea baino hobea baita. Karrtoa norberak jarri beharko luke. Bestela poltsa handiak erabili, plastikozko poltsak ahalik eta gutxien erabili ditzagun.
 - Maskarila edo buff bat ere erabil daiteke segurtasun neurri gisa (hautazkoa)
- **GARRANTZITSUA! AHAL DEN GUZTIETAN EROSKETAK HERRIKO DENDA TXIKIETAN EGIN** (eskatzailleak kontrakorik esaten ez badu behintzat). Herriko merkataritza bultza dezagun!

EGIN BEHARREKOAK:

1. Udal arduradunak telefonoz deitzen duenean, erosketa egin dezakezuen edo ez, momentuan erantzun.
2. Apuntatu beharrekoa: Izena, helbidea eta telefonoa
3. Baiezkoa bada, ahalik eta azkarren zerbitzu hau behar duen herritarrari deitu.
4. Garrantzitsua da konfiantza eta gertutasuna transmititzea, honen antzeko gidoi bat jarraituta:
Kaixo, egun on! _____ naiz, zer moduz zaude? Ni izango naiz erosketa egin eta zure etxera eramango duen boluntarioa. Zer da erostea behar duzuna? joan esaten eta nik apuntatuko ditut.
5. Ordainketa egiteko moduaz galdetu. Eskudirutan, txartelarekin (datorren astetik aurrera egongo da aukera txartelarekin ordaintzeko) edo transferentzia bidez (15 eguneko epean egin beharko da transferentzia).
6. Udalera joan eta bertan egongo den arduradunari eskatu: Txalekoa, identifikazio txarteltxo eta ordaintzeko kreditu txartela (klabearen zenbakiarekin). Apuntatutako erosketa-zerrendaren fotokopia bat atera behar da.
7. **EROSKETAK EGIN, TXARTELAREKIN ORDAINDU eta TIKET GUZTIEN BI KOPIA ESKATU.**
**Salbuespena: Ogia erostea. Okindegietan txartelarekin erosi ezin denez, boluntarioak bere dirutik erosi ahal izango du. Gero, beste tiketetako baten gainean boligrafoz jarri eta gehitzea egin.*
8. Herritarraren etxe atarira joan eta berriro deitu eta portaleko atea zabaltzeko eskatu.
9. Etxera igo eta erosketa eraman. Erosketa bakoitzeko tiket bat berari eman eta ordaindu beharreko kopurua jakinarazi.
10. Dirua jaso edo txartelarekin ordainketa egin edo kontu korrante zenbakia pasa eta transferentzia egiteko kopuruarekin batera (kasu honetan transferentzian kontzeptu gisa bere izena eta abizena jartzeko esan).
11. Udaletxera bueltatu.
12. Udaletxean dagoen arduradunari tiketak pasatu eta gastatutako diru kopuruaren berri eman. Kreditu txartela, txalekoa eta identifikazio txartela bueltatu.

ESKERRIK ASKO BOLUNTARIO IZATEKO URRATSA EMATEGATIK!!!